

IRITZIA

Ion Gurrutxaga

il

Dieta naturistak:
elikadura

tradizionalaren
alternatibak

San Pedroko
etxeetan kirol
gunea sortzeko
asmoa du Udalak

GEHIGARRIA

Zaharrak berri

BERBETAN

Mikel Parada
musikazalea

Hy)

Hasi da Nazioarteko
Xake Txapelketa

BARRREN

1997ko azaroaren 28a
V. urtea - 216. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Elikadura naturistak

jan behar da, eta ez jateko bizi" MoMre

Kontzezio Azoka Mendaron

Abenduak 6, ttilbata

Goizeko 9:00etatik

14:00etara

Frontoi inguru

Mendaroko txokolatea
Nekazaritza biologikoa

Barazkiak

Fruituak

Ogi artesanoa

Pastelak

Sagardoa

Lore lehorrak

Ardiak

Behiak

Zaidiak

Hegaztiak


Esku lanakm

ivitrrit7a[lod



Antolatzailea





ION GURRUTXAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea?

kasketa ertainak bukatzen dituen ikasle askoren ilusioa izaten da unibertsitatera joan ahal izatea. Bertan, etorkizunean izango duen lanposturako prestakuntza egokia jasoko duela suposatzen da. Hala ere, ziur nago, azkenaldian Esperanza Agirreren plan herri honek sortarazi dituen iskanbilak guraso asko duda-mudan utzi dituela.

Argi dago, gaur egungo plan berri hau ez dela egokiena, bost urteko lizentziaturak lau urtean utzi ditu, eta noski, honen bere aspektu positiboak eta negatiboak ditu, oraingoz gehienak negatiboak. Gauzak honela, arazoak dexente dira, batzuek aipatzearen: ordu-tegi desproporzionatua, ikasgai trankal eta aukerakoen ordutegia berdina izatea kasu batzuetan...

Hala eta guztiz ere, oraindik arazorik handiena euskaraz ikatea nahi dugunok pairatzen dugu. [zan ere, hainbat eta hainbat ikasketatan ezin baita bigarren zikloa (lizentziaturaren azken bi ikasturteak) euskara hutsean jaso, kasu askotan azken bi urte hauek oso-osorik erdara hutsean eman behar izanik. Ezbairik gabe, jakina da azken urteotan hezkuntzaren arloan aurrerapen handiak egin direla euskarari dagokionez. Hala ere, sinestezina da 2.000 urtearen atarian izanik, Euskal Herriko Unibertsitate publikoan edozein lizentziatura euskara hutse-

an gauzatzeko aukera ez izatea. Egoera honen aurrean arduradunen aitzakia kasu hauekarako ohikoena eta errazena izaten dena da: arazo ekonomikoa, irakasle euskalduna kontratatzeke diru nahikorik ez dagoela, alegia. Beraz, arestian aipaturiko arazoak epe motzean konponduko badira ere, badirudi, euskaldunon arazoak luzaroan iraungo duela. Baina noiz arte? Agintariek epe luzera

konpondu nahi den arazo bat dela diote, baina beti ere horretantxe gelditzen delarik, epe luzerako kontu batean.

Bestalde, EHUko euskal ikasle eskubideak ez dira arlo akademikora soilik mugatzen, honela, administrazioan ere oztopoak izaten ditugu euskaraz mintzatzerako orduan. Adibidez, Leioako Kanpuseko idazkaritzako hiru lehiatiletan dauden pertsonetatik bakarra da

euskalduna; beraz, kontsultak egiteko egoten den jendetzarekin zure txanda heltzean euskaldunaren aurrean bazaude, zorianakl Zortedun pertsona izan zara eta.

Beraz, ikusten denez oraindik ere ustezko EHU honetan euskal hiztunak gutxiengo bat izateaz gain, gutxiengo diskriminatu bat gara. Hortaz, bada ordua dagokion agintariak gai honen inguruan ere eskuhar dezan; guztiona baita norberaren ama hizkuntzan ikasi eta bizitzeko eskubidea.

"EHUko euskal ikasleon eskubideak ez dira arlo akademikora soilik mugatzen, honela, administrazioan ere oztopoak izaten ditugu euskaraz mintzatzerako orduan"

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.





Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

17 74 41 12

Publizitatea:

it 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBUZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Comejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	I rati Agirreazaldegı, Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edume Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guillo, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarrt Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Iban Urizar Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILLIA	SS-I .038/92
ISSN	1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



fundazioa
ICIPE fundaciOn

DANOBAT
MAQUINAS HERRAMIENTA

SSGOITI
GRUPO DANOBAT

Presoak 13 urtez gartzelan

Elgoibarko presoek ostegunean, **Ehilak** 27, 13 urte bete zituzten gartzelan. Honez aparte, dispertsaturik jarraitzen dute. Horrek dakartzan ondorioak, bai fisikoak eta psikologikoak, ezagunak dira, baita euren senitartekoentzat ere.

Honengatik Zazpiki irratiak preso-en egoera salatzen **du** eta beraiekiko elkertasuna adierazten.

Euskal Presoak Euskal Herrira.

Zazpiki Irratia

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazilakoen erantzukizunik.

KEXAK

• San Pedroko etxeetan bizi den batek auzoaren egoera penagarria salatu nahi du: "Ifiigez de Karki-zaoko kalean umeak jolasean ibiltzen dira balauekin. Askotan baloiak eta jostailuak trenbidera erortzen dira eta gurasook horiek jasotzera joan behar izaten dugu. Baina **trenbidea sasiz beteta dago eta sasien artetik katuen taimainako arratoiak irte-ten dira eta sugeak ere askotan ikusi ditugu.** Bi edo hiru aldiz deitu dut Udaletxera kexatzen eta

erantzun bakarra izan da pozoia botako dutela. Haurrek inguruan jolasean jarduten dute eta gertatu izan da umeren batek benenoa jatea. Itxuraz trenbidea txukun edukitzea Eusko Tren enpresari dagokio baina haiek ere ez didate kasurik egin. Hau ez da dena, **Artetxeko etxeetako baratzetan dauden zuloetatik ere arratoiak ateratzen dira eta askotan sartu izan dira leihoetatik etxe barrura.** Mese- dez, bada ordua norbatek zerbait egiteko!"

TXALOAK

• **Udalaren Musika Bandako zuzendariak pasaden domekako kontzertura joan ziren zaletu guztiak txalotu nahi ditu:** "urte osuan zihar Bandian kontzertuak entzutera 400 bat lagun etortzen dia. Benetan entzulego fina daka- gu. Igandian ixa 600 izan zian eta txalo eta zorion ugari jaso genitxun. Benenetan, mila esker".

• **"Jausoroko bizilagunok Udala txalotu nahi dugu kalean zakarrontziak ipini dituztelako.** Ardura konstruktorearena bazen ere, honen ezetzaren aurrean Udalak ipini ditu".

• **Musika zaletu batek Musikeskola eta Banda txalotu nahi ditu "Santa Zezilia-ko kontzertu ederrengatik.** Era berean, Aitor Larrearen ama txalotu nahi dut".

BA1, ESAN?



Angel Ugarteburu
Herri Institutuko zuzendaria

Aste honetan Herri Institutuko telefono zenbakia markatu dugu. Izan ere, jakingo duzue Madrilgo Kultura ministroa den Esperanza Agirrek Humanitateei buruzko lege berria atera duela. Legeak zalaparta ugari sortu du eta intsumisioa ere eskatu dute batzuek. **Guk Institutuko zuzendaria den Anjel Ugarteburuk** gai honi buruz zer pentsatzen duen jakin nahi izan dugu.

- Zer da, bi hitzetan, legeak esaten duena?

Gauza guztiek bezala, gai honek ere badu bere kontestua. Askok dira gizarte teknifikatu honetan giza zientziei hezkuntzan garrantzia kendu egin zaiela uste dutenak eta hori salatzen dutenak. Arrazoi honetan oinarrituz, Madrilgo Hezkuntza Sailak literatura eta historiako zenbait gai zabaldu eta sakondu nahi lituzke. Hala ere, autonomiei emandako eskumenean, hauei dagokio %45ean edukiak izendatzea. Madrilek nahi duen gutzia sartzekotan, tokatzen zaion %55a baina gehiago erabiliko luke. Konpetentzien artean gatazka dago, beraz.

- Lege honek ez al du zuen hezkuntza proiektuarekin txoke egiten?

- Botere zentralistaren alde jokatzeko den neurrian, horrelako inposaketa bat arbuigarria da. Ikastetxe bakoitzeko Hezkuntza Proiektuen arabera ikusi eta aztertuta beharko da giza zientzietan zer eta nola iandu. Izan ere, ez dago bere ikasleen hezkuntzan axolarik ez duen ikastetxerik.


- Sarreran legeari intsumisioa eskatu duenik ere badela aipatu dugu.

- Ez dago dudarik osagai politikoak dituela gai honek. Inposaketak kontrako jarrerak sor ditzake berez. Oraindik, botere zentrala botere autonomikoekin hitz egin eta akordioetara iristeko aukeran dago. eri teilatuan dago pilota.



ESKERTZA

*1997ko urriaren 25ean, 57 urte zituela hil zen
RAMON SAN MARTINen sendiak
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



BarazkijaLc en esperientziak

Sukaldari famatuenean dieta mediterranearra delakoa goraiatzaren garaia dugu. Oliba koipea erabili eta denetik jan behar da, elikadura orekatua mantenduz. Harelere, betidanik egon dira bestelako dieta batzuk nahiago izan dituztenak. Horien artean daude barazkijaleak, dieta makrobiotikoa, higienistak... Pertsona batzuek, dieta hauen bidez gorputzak behar dituen elikagai guztiak ez direla hartzen uste dute. Beste batzuek, aldiz, buru-belarri defendatzen dituzte. Beti ere, adituek aholkatutako dieta jarraituz eta oreka mantenduz. Kontua, janariarekin disfrutatzen jakitea da, edozein motatako dieta izanik ere.

endeak arrazoi desberdinak izaten ditu okela eta arraina ez jateko, "batzuek berez baztertzen dute animalietatik datorren edozer, baita esnea edo arrautzak ere. Beste batzuek, osasun arazoak direla-eta aukeratzen dute dieta makrobiotikoa; izan daiteke momentu konkretu batean gorputza garbitu nahi izatea eta horretarako baraualdia egitea...". Lucia Casquero duela 14 urte inguru hasi zen gai hauekin, "osasuna zela eta". Bere ustez, "lehenago edo beranduago gorputzak abisua ematen du. Hau da, gauza konkretu bat jateak ez du eragin txarrik izan behar, baina epe luzera ondorioak izan ditzake. Adina ez da gaitz guztien arrazoia, elikadurak ere eragin handia dauka



gorputzean eta, hortaz, baita osasunean ere". Hori dela eta, zenbat eta hondakin edo toxina gutxiago jan eta gehiago bota, orduan eta osasuntsuagoak izango gara. Kontua, jaten dugunarekin konsziente izatea da. Elikatzeko jan eta, horrez gain, jaten dugunarekin disfrutatzea".

Janariarekin disfrutatzea

uciak izugarri disfrutatzeko jaten, "niretzat, prestatzen ditudan platerak jatea plazerra da". Berak denetik probatu du, "garai batean barazkijalea izan nintzen, radikala. Sendatzeko gomendatu zidatena, egin nuen eta ondo joan zitzaidan: zoragarri egiten nuen lo, digestio oso onak izaten nituen... Gero, dieta makrobiotikoaren berri izan nuen eta asko interesatu zitzaidan. Liburuak irakurtzen hasi nintzen eta planteiatzen zuen filosofiak asko erakarri ninduen. Paradisua zabaldu zitzaidan. Gaur egun dieta makrobiotikoa jarraitzen dut, beti ere nire erara. Niretzat makrobiotika da dieta ideala. Energiak beteta sentitzen naiz". Kontatu digunez, "kanpora joan behar izaten dudanean bazkaltzera, ahalegintzen naiz okelarik edo arrainik ez jaten eta normalean bi lehenengo plater eskatzen ditut: barazkiak eta arroza, esaterako. Baina, toki

konkreturen batean espezialitatea bildotsa bada, esaterako, ez dut arazorik izaten hori jateko. Goizero kafe ebakia hartzen dut eta, noizean behin, ezin izaten diot tentazioari eutsi eta pasteleriari joaten naiz gurinezko opila jatera".

Luciak bere etxean denen gustua errespetatzen du, "nik inoiz ez dut inor derrigortu zerbait jatera. Probatzera gonbidatzen ditut, gustatzen bazaie ondo, baina, beste zerbait nahi badute, ez da ezer gertatzen. Dieta guztiak en-espetatu behar dira". Goizero zereal integralak gosaltzen ditu, tea hartu eta, lanean joan aurretik, "ebakia, nahiz eta ez



LICIA
Casquero



her otxandiano

Remedios Serena



den komeni".

Eguerdiari fruta jaten du eta bazkal-tzeko, "zerealen bat, barazkiekin eta le-kariekin". Luerak momentu honetan ez du dieta zorrotzagoa jarraitzen "batez ere denbora faltarengatik. Beste gauza batzue-tan sartuta nabil eta ez daukat astirik nik nahi bezala kozinatzen. Egunen batean, askoz dieta zorrotzagoa egingo dut seguruen".

Yogarekin hasi eta barazkijale bihurtu

Remedios Serena barazkijalea da **R**edula hiru urtetik hona. Esan digunez, "yoga klaseekin hasi eta, konturatu gabe, okela hazterten hasi nintzen". Halere, ez du trabarik jartzen egunen batean okela zatiren bat eskaintzen badiote, "badakit egoera eta toki guztietara egokitzen eta ez da ezer gertatzen lagunarteko afaria dudalako edozer jateagatik". Remedios ez dago ados barazkijale izan eta tristura datorrela esaten dutenekin, "alderantziz, barazkijaleen gorputza askoz indartsuagoa izaten da, energiaren betea egoten da. Okela jateak momentuan eszitatuta egiten

zaitu baina berehala dator beheakada". Remediosen elikagaiak hiru arlotan banatzen ditu "Tanzak (kontserbak, enbutidoak, tabakoa, alkohola...), inertzia eta apatia ematen dutelarik; *Rasak* (arraina eta okela, kafea...), aktibitatea eta pasioa ematen dutenak eta *Scavak* (fruta, esnea, zerelak, legunbreak), oreka eta garbitasunaren islada".

Remediosen iriziz, "zer jaten dugun jakin behar dugu. Astearen behin tajada bat jateagatik ez da ezer gertatzen". Remediosen gosalteko fruta jaten du, "txikitzen ere ez nuen esne-

rik hartzen, ez zait gustatzen". Bazkal-tzeko eta afaltzeko, berriz, "entsalada bat eta barazkiak, zerealak edo legunbreak". Gorputzari entzun behar zaiola esan digu Remediosen, "jatordu baten ostean, gorputzak nahikoa dela esaten badigu, kasu egin behar diogu eta ez, gula dela eta, jaten jarrai tu".

Garai bateko elikaduratik ez du ezertxoren beharrik somatzen, "urdaiazpiko tortila jateko gogoaz sartzeko bazait, jan egiten dut. Okerragoa da ez jateagatik obsesionatzea". Izan ere, bere hitzetan, "guk jaten ditugun abereak barazkijaleak dira. Abere horien okelaren bidez barazkien elikagaiak jasotzen ditugu baina baita beste hondakin batzuk ere. Hobe da zuzenean hartzea barazkiak eta horien elikagaiak". Remediosen oso garbi du astean behin egun oso bat fruta bakarrik jaten pasatzea oso ona dela, "batez ere aurreko egunean okela jan denean eta gorputza garbitzeko beharra bada". Yogarekin hasi eta burua garbitu zuen. Barazkijale bihurtu zen eta gaur egun gorputza ere garbi mantentzen du. Esaerak dioen bezala, "mens sana in corpore sano".

Dieta barazkijalea izan edo ez, normalean elikagaiak ondo konbinatzen jakitea gomendatzen da, horrela digestioa errazago egiten baitu gorputzak. Lucia Casquerok esan digunez, fruta bakarrik eta jatorduetatik kanpo jatea komeni da eta proteinak (legunbreak, okela, arraina edo arrautzak) beti barazkiekin lagunduta, patatarik jarri gabe. **Iarraian, Ludak emandako zerrenda luzatuko dugu, gaur egun dauden zenbait dieta naturista aipatuz.**

Animalien proteinak jan behan-ean, proteina begetalak jaten dituzte. Izan ere, legunbrea eta zereal integralak nahastuta, okelak, arrainak edo arrautzek ematen dizkiguten proteina kopuru bera lortzen da. Zerealen artean arroz integrala da proteina gehien eta hondakin gutxien dituen. Fruitu lehorrek ere proteina asko dute. Arrautza, esnea eta deribatutak ere hartzen dituz-

BEGETALIANOA Barazkijaleak dira eta ez dute amaliengandik datorren ezer kontsumitzen, ez esne, ez gaztai, ez arrautza ez bestelakorik, ezta izan ezik.

Dieta makrobiotikoa barazkijalea izan daiteke edo baserriko oilaskoarekin edo arrainarekin konbina daiteke. Kasu honetan, jatorduetan %50 zereala izan behar da (normalean arroza), %35 barazkiak eta gainontzekoak proteinak (soja, babak, lentejak, garbantzoak edo, nahi bada, arraina edo baserriko oilaskoa). Makrobiotikan garrantzitsuena sendatzeko edo ez gaixotzeko behar duguna jaten ari garela jakitea da. Dieta pertsonalizatuena da.

Barazkijaleak dira baina oso zorrotzak.

Kasu honetan, barazkiak, fruta eta fruitu sikuak bakarrik eta dena gordinik jaten dute, egosterakoan bitaminak eta mineralak galdu egiten direla uste dutelako.

Gorputzak digestioa egiterakoan erretzen du energia gehien. Jaten ez bada, gorputzak energia hori erabiltzen du toxinak kanpora botatzeko. Baraualdia, berriz, ezer jan gabe, likidoa edanez bakarrik egin daiteke baina badira frutarekin egiten dutenak. Oso gomendagarria da udazkena eta udaberria hasi aurretik egitea. Beti ere, batez ere lehenengo aldiz, profesionalen aholkularitzarekin egitea komeni da.

Ezagutzen al dituzu dieta naturistak?



M. CRUZ BELAUSTEGI
33 urte, dendaria

Makrobiotikoa, bejetarioa... hadakit zer diren baina ez ditut egin sekula. Osasuntsuena dieta orekatu bat jarraitzea dela uste dut, cletetik piska bat janez.



IGNACIO GARAI
34 urte, bijilantea

Badakit jendeak argaltze aldera eta osasunagatik dieta desberdinak egiten dituela. Denetik jatea gustatzen zait eta zaila egingo litzaidake mugatzea. Txuleta on bat dagoen tokian!




ANA ISABEL MORENO
20 urte, ikaslea

Homeopata ezagutzen dut. Orain dela urte batzuk dieta bat jarri zidaten eta pastila batzuk hartu behar izan nituen. Denetik jaten nuen, oreka mantenduz.



MILA ALBERDI
44 urte, etxeoandrea

Aitxu det dieta desherdinak daudela baina ez naiz fixatzen. Uste dot ez daudela ondo ekilibrauta eta estudixauta. Danetik jan bihar da. Oin, medikuak aginduta balitz...



RAFAEL POLO
47 urte, kaldereroa

Zerbait bai. Etxean daukagun neska barazkijalea da eta alaha ere ibili izan da osasuna hobetze aldera. Osasun arazoak daudenean gauzarik naturalena dira.



MANUEL CORBBN
47 urte, espezialista

Zerbait entzun izan dut baina nire lanerako arinegiak dira. Elikadura sendoagoa hehar da, indarra cmaten dutenak. Beti ere gehiegikeriarik egin gabe.

Sei hilabeterako begien



bistatik kenduko gaituzu
bi lentila kaxa
eta soluzio bakarreko


beste bi pote
1 5.000 ptan,
eta gainera erloju bat opari
memoomegaga.

UZURI OPTIKA
MULTIOPTICAS

San Frantzisko, 21
Tel: 74 03 59 ELGOIBAR
Ostolaza, 7
Tel: 19 21 92 DEBA

Abenduaren letik 8ra,
obrak direla eta,
denda ilxita egongo da.
Barkatu eragozpenak!

KALEAN EZ EGIN 'KALE'



Ez bota kalean etwan botatzen ez duzuna

GERO ETA GARBIA3



FI WIEH&...11111.51A



DET3A1WHEI(11114115)INTATEX

rn)

(11P11(1115011IRE AL_P

BaRREN

• **Elgoibarko plano topografikoak gaurkotuko dira**

Eusko Jaurlaritzak Elgoibarko Udalarari 2.975.400 pta.ko dirulaguntza eskaini dio kartografia topografikoa egiteko. Hirigintzako lehendakaria den Jose Maria Oruesagastik adierazi duenez, "Elgoibarrek 150 hektarea inguru ditu baina momentuz 38 hektareari buruzko plano topografikoak egingo dira, ez baitago gehiagorako dirurik. Oraindik aztertzen ari gara zein zonarekin hasi. Helburua datozen urteetan herri osoaren plano topografikoa gaurkotzea da". Badirudi IMH bere kontura ari dela inguru hartako 25 hektareari buruzko planoak egiten. 38 hektarea horien proiektuaren batez besteko kostua 3.900.000 pta.koa izango da, %75 Eusko Jaurlaritzak jarriko duelarik eta gainontzekoa Elgoibarko Udalak.

• **"Papel machn" ikastaroa**

Haizea Emakume Taldeak "papel machn eskulan teknikari buruzko ikastaroa antolatu du. Klase eguna asteazkena izango da, goizez edo arratsalde. Izena emateko 74 38 29 zenbakira deitu iluntzeko 19:00etatik 20:00etara bitartean.

• **Haizea Emakume Taldeak antolatutako 7ine saioa**

Haizea Emakume Taldeak Ongarri Zine Klubarekin elkarlanean, zine klub saioa antolatu du ostegunrako, abenduak 4. "El retrato de una darna" pelikularen bidez afektibotasunaren gaia landuko da. Hezitzen taldeko Amagoia Zabalak pelikularen aurkezpena egin eta emankizunaren osteko eztabaida bideratuko du.

Lanbide Hezkuntzari buruzko akordioa sinatu du IMHk Hezkuntza SaHarekin

Iñaxio Oliveri sailburua sinadura ekitaldian izan zen

Erreminta Makinaren Formaziorako Fundazioko ordezkariak eta Iñaxio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak kolaboraziorako hitzarmena sinatu zuten pasa berri den astelehenean. Iñaxio Oliveri Elgoibarko IMH ikastetxean izan zen IMHko Fundazioko ordezkarien onspena jasotzeko. Alberto Ortueta AFMko zuzendaria eta Erreminta Makinaren Formaziorako Fundazioaren presidentea, Gillenno Garate alkatea eta Fundazioko idazkaria, eta IMHko zuzendaria Jose Rejo izan ziren IMHren izenean akordioaren sinadura ekitaldian parte hartu zutenak.

Hitzarmen hau Lanbide Heziketaren Euskal Planaren barruan aurreikusten den

Berrikuntza Teknologikorako Institutuen ezarpenerako abiapuntua izango da. Maiatzean onartu zen plan honek Lanbide Heziketako zentro integralen sare sendoa sortu nahi du. Sare honen barruan Berrikuntza Teknologirako Zentroak daude "IMH ikastetxean oinarrituta daudenak", adierazi zuen Oliverik. Planaren helburua sektore industrial jakin batean oinarritutako lanbide heziketarako zentroak sortzea da eta maila teknologiko altua izatea. "IMH ikastetxea sare honetako zentrorik garrantzitsuen izango da Euskal Henian, erreminta makinaren sektoreari lotuta dagoetako eta erremintaren sektorea estrategikoa delako", gaineratu zuen sailburuak.

Bestetik, IMHko hezkuntza arautua eta ez arautua erregularizatuko du akordioak behin-betiko. Aurrerantzean Hezkuntza Sailak izango du IMHko titularitatea eta lanbide heziketako zentrozen erregimenaren arabera funtzionatuko du. Hezkuntza ez arautuaren arduraduna, berriz, (langabetu eta langileentzako ikastaroak) Erreminta Makinaren Fundazioa izango da.



Mercadeco elkartasunaren denda astelehenean, abenduak i, irekiko da

Darrokiako Misio Taldeak Mercadeco **izeneko** ONG-aren elkartasunaren denda irekiko du astelehenean, abenduak I. Denda hau urtarrilaren 5era arte egongo da irekita eta aurren Errosario kaleko 3an, Unzueta familiak utzitako lokalean kokatuko da (lehengo Moskote). Bertan Hirugarren Munduko pertsonak produzitutako produktu ezberdinak egongo dira salgai: kakaoa, kafea,

artisau-lanak, etab.

Denda honen asmoa Hirugarren munduko pertsonen beraien baliabideen bitartez duintasunez bizitzen laguntzea da. Parrokiako Misio

Taldea iaz hasi zen Mercadecorekin elkarlanean elkartasun denda bat irekiz. Salmenten bidez lortutako diru kopurua 942.777 pta.koa izan zen. Horietatik %20, hau da, 181.635 pta. Mercadecok Misio Taldearen eskuetan utzi zuen. Diru hau Hirugarren Munduko herrialdeei laguntzeko erabili du Parrokiako Misio Taldeak, herrira etorri diren misiolariari emanaz, lan egiten duten herrialdeetan inbertitu dezaten.





800 bat lagun bildu ziren Aitor Larrea zenaren omenezko kontzertuan

Udal Musika Bandako zuzendariak esan digenez, "kontzertu henetan emozioantia izan gendun dornekan. Euren kalkuluaren arabera, 550 edo 600 bat pertsona joan ziren kontzertua entzutea. Jose Antonio Osoro zuzendariak Aitor Larrea handakidea zenaren amari bandako argazki bat etnan zion guztien izenean. "Benetan emozioantia izan zan Aitorri ein jakon omenaldixa; txalo mordo bat ein zaban jendiak". Kontzertua "bikain" irten zen zuzendariaren esanetan, "Bittor Alberdik eta Juan Manuel Saezek bakarka jo zuten piezak ederki urten zian".

Zapatuan, Aitor Larrearen omenezko mezan Bandak eta eliz abesbatzak Tanhaiisser operaren "Coro de peregrinos" jo zuten. Ondoren kalejira egiteko asmoa hazuten ere. euria zela eta, eliz arkupeetan jo behar izan zuten. Igandean, kontzertuaren ostean, Bandako guztiek hazkaria izan zuten Karakate elkartearen. "Egun zoragarria" pasatu zutela esan digute.



HIESaren Prebentzio kanpaina

Errotatxok antolatutako HIESa dela-eta hildakoen omenaldiko argazkia daukagu lerro hauen gainean. Ekintza ezherdinei buruzko balorazioari buruz, Gaztetzeko erakusketa, hitzaldia, zine kluha eta Tunantes del Norteren antzerkia, "oso ondo egon ziren eta partaidetza ere oso handia izan zen. Antzerkian adihidez, Gutetxea gainezka zegoen. Zapatu gaueko jaialdian "diapositiba emanaldia oso gaizki" atera zen arren, "musika aldetik ondo, eta hertsolariei dagokienean, oso interesgarria izan zela uste dugu". Beste ekintzetan, oinenaldian kasu, "kanpoko jendeak adierazitako elkartasuna oso positibotzat jotzen dugu, baina tamalez, herritarren falta nabaria izan zen. Honez gain, udal ordezkarien falta igani dugu ekintza guztietan, beste udalerrietan gertatzen ez den bezaia".

• Musikeskolak Santa Zezilia eguna ospatu zuten

Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek Santa Zeziliaren omenezko kontzertu herezia eskaini zuten joan den ostiral iluntzean Herriko Antzokian. Aurretik kalejira egiteko asmoa hazuten ere, euria zela eta, hertan behera utzi behar izan zuten. Arrazoi honegatik kontzertua ordu erdi aurreratu zen. Kasik hi ordu luzatu zen saioan 10 eta 18 une bitaneko 120 ikaslek hartu zuten parte banaka edo taldeka. Musikeskolako arduradunak "oso pozik" agertu dira "joan zen ikusle mordoarengatik eta musika aldetik ere ederki atera zelako den-dena. Pieza modernoekin batera klasikok ere jo zituzten". Musikeskolan irakasten diren instrumentu guztiek izan zuten presentzia. Azpimarratzeko modukoa da Musikeskolako bi irakaslek egindako "Elgoibar-ko teitatueta hitz egiten" obra jo zela estreinakoz.



• 50 bat argazkilari elkartu ziren erakusketaren inaugurazioan

Ongarri Argazki Kolektiboak antolatutako 49 argazkigileren erakusketaren inaugurazio ekitaldia izan zen ostiral iluntzean. Ekitaldia Jesus Mari Sarasua Ongarriko kidea eta Giller- mo Garate alkatearen hitzekin hasi zen. Ouka Lele, Vicente Garai eta Gorka Salmeron argazkilariek erakusketan parte hantzen duten argazkilarien belaunaldi ezherdinen ordezkari papera bete zuten. Erakusketan dauden 35 argazkiiarik parte hartu zuten inaugurazio ekitaldian eta hauez gain, beste 12 argazkilari inguru ere izan ziren. Erakusketa abenduaren 13ra arte egongo da zabalik.



San Pedroko etxeetan kirol gunea egiteko lurrak erosi ditu Udalak

3.800.000 pta. ordaindu dizkio terrenoengatik Eusko Jaurlaritzari

San Pedroko etxeak eta Karkizaoko trenbide zaharreko tunelaren arteko lurrak erosi dizkio Udalak Eusko Jaurlari tzari aisialdirako eta kirolerako gune bat sortzeko asmoarekin. Trenbideko lurrak dira Udalak erosi dituenak eta 4.326 metro karratu dira guztira. Lurrengatik 3.800.000 pta. ordaindu ditu Udalak. Alkatearen esanetan, "San Pedroko auzoak kirolerako eta aisialdirako gune baten beharra dauka, herri erditik urrun baitago". Alkatea "pozik" azaldu da Eusko Jaurlaritzarekin lortutako akordioarekin, "negoiazioak gogorrak izan dira baina azkenean, ados jarri gara bi aldeak". Lurren erosketari esker San Pedroko etxeetako biziagunek aisialdirako leku bat izango dute, "printzipioz futbitoa eta eskubaloian jokatzeko pistak eta auzotarrentzat pasealekuak etab. egingo lirakeke."

Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordioari esker Elgoibarko Udalak Karkizaoko trenbide zaharreko tunela-

ren jabetza eskuratu du. "Eraikin honen erabilera handia izan dezake" Garateren ustez, "buruari pare bat buelta eman behar du dizkiogu tunel honek San Pedroko auzotarrentzat erabileraren bat izan dezan".

San Pedro auzoa eta uholdeak

Bestalde, orri hauetan jakinarazi genuen bezala, Eusko jaurlaritzak atzera bota du errekararen mozketar buruzko proiektua. Hori ikusita, Elgoibarko Udalak, konponbide altematibo bat proposatzea eskatu dio Eusko Jaurlaritzako Lan Publiko eta Garraio sailari. Gillermo Garate alkatearen hitze tan, "daukan kokapenarengatik effaz irteten da ura San Pedro auzo-



San Pedroko etxeen amaieran kokatuko da kirol gunea.

an eta beharrezkoa da irtenbide bat topatzea". Duela egun batzuk alkatea Lan Publiko eta Garraio kontseilaria den Jose Antonio Maturanarekin elkartu zen eta, dirudienez, Eusko Jaurlaritza azterketa bat egiten ari da, "errekararen mozketak egiteak auzoarentzat suposatuko lukeen abantaila beretsuak eskainiko lituzkeen plan bati buruz".

• Erreminta Makinaren museoaren eraiklize lanak hasi dira

Dagoeneko hasi dira San Roken, IMH ondoan, Erreminta Makinaren museoaren eraikitzeko lanak. Iazko urriaren 26an onartu zuen Udalak aipatu zonako 20.230 metro karratu doan enaatea Erreminta Makinaren Teknika Hezkuntzarako Fundazioari. Lurren batez besteko balioa 95.749.500 pta.koa da. Jose Rejo, IMHko zuzendariak adierazi digunez, lanen aurrekontua "35 milioi pezetakoa da eta 1998. urteko otsailerako amaituta egotea espero da". Museoan XX. mendeko hasierako erreminta makinak izango dira ikusgai.



OLFISO TABERNII

Dlaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

-EGUNEKO MENURK-
-LIRUNFIRTETON-
Flabak • Olagarroa • Fritoak
-GAUEZ-
Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

• Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntnak, banketeak...
• Enkarguak egiteko aurrez deitu

**ESKH EZRUZU HURIEKONTUR
INOLIIKO KONPROMEZURIK GRBEI**

OrdUtegia: Ostelehenetik ostiralera 7:80-22:513
Earrubatetan 9:00etatik aurrera



Antonio Frango do Santos: "Portugalen herri txiki ezezagun oso politak daude"

Antonio Frango Do Santosek 69 urte ditu. Potugaldarra da jaiotzez baina txikia zela bere famillarekin Salamancara jo zuen lan kontuak zirela eta. Beranduago, Euskal Herrira etorri zen bere anaia-ekin, Sorluzera, hain zuzen. Bertan 15 urte egin zituen eta gero Daria Rivas-ekin ezkondu eta Elgoibarrera etorri zen. 35 urte daramatza hemen. Hori bai, urtean birritan Salamancara eta Portugalera joaten da.

Non jaio zinen?

- Rebolosa izeneko herri txiki batean. Gaur egun 400 biztanle inguru izango ditu, herri txikia da. Nik sei urte nituen guraso eta anai-arrebeekin Salamancara emigratu genuenean lan kontuengatik.

- Batetik bestera. Beranduago, Sorluzera etorri zinen.

- Hala da, bai. Salamancan mehategi batean egiten nuen lan baina hura itxi zutenean lana topatu beharra izan nuen. Anaiari eta biori Sorluzeko lantegi batean eskaini ziguten lanerako aukera eta honuntza etorri ginen.

Gero, Elgoibarren bizi zen galiziar batekin ezkondu zinen.

- Bai, eta Elgoibarrera etorri nintzen bizitzera. 35 urte daramatzat dagoeneko hemen.

- Halere, ahal duzun guztietan egiten duzu eskapatxoa Salamancara, ez?

- Bai, Gabonetan, Aste Santuan, udako oporretan... Ahal dudanean. Eta Salamancatik Portugal oso gertu daukagunez, hara ere sarri joateko aukera daukagu. Askok

gustatzen zait Portugal.

- Zein toki gomendatuko zenioke Portugal bisitatu nahi duen pertsona bati?

- Lisboa ez naiz iritsi; beraz, ezin dezaket esan ikustekoa den edo ez. Baina, Oporto inguruan herri txiki benetan politak daude. Inork ere ezagutzen ez dituenak baina ikusgarriak direnak, herri lasaiak. Ostantzean, turismoarentzat egokituak dauden herrien artean Coimbra oso ederra da, izugarri gustatzen zait. Herri hori bisitatzeari beharrezkoa da Portugalera joaterakoan.

- Oporto ardoa gustura edaten al da?

Nire gusturako, oportoa goiz partean pintxoak jaten edateko ardoa da. Jatorduetarako nahiago dut ardo beltz ederren bat edatea. Hori bai, Portugaleko herri txikietan oso ondo jaten da, eta gainera merke. Behin, jatetxe txiki batera joan ginen eta 1000 pezetagatik makailoa patatekin jan genuen, entsalada, postrea, kafea eta kopa. Guztia bikain zegoen. Etxeko lanik egin gabe, zuzenean jatetxera joan, jarri, jan eta altxatu. Hori bai dela bizitzea!

- Eta erosketak ere ugari egiten omen ditu jendeak Portugalen.

Villaformosa izeneko herrian hilero egiten da merkatua. Izugarria izaten da. Elgoibarko Plaza Haunditik Altzolara dagoen tartea baino luzeagoa izaten da. Ehundaka pertsona joaten dira bertara, baita autobusez ere, eta denetik erosten dute: arropak, manteleak... Ziur naiz, askok eta as-

kok, han erositakoa gero hemen saltzen dutela.

Euskal Herriak duen paisaierik ba al dago?

- Oso desberdina da. Hemen pinadi asko daude, Portugalen, aldiz, eukaliptoak eta antzekoak nagusitzen dira. Salamancak ere oso toki politak ditu eta bertara joaten den edonork esango dizu Salamancan jaten den urdaiazpikoa eta txorizoa izugarri onak direla. Eta gauza artifizialik jan gabe hazten dituzte txerriak. Hori igarri egiten da!

- Han eta hemen zure txokoa duzu, beraz.

- Elgoibarren oso gustura bizi naiz. Inork ezingo du bestelakorik esan. Eta noizean behin Salamanca eta Portugalera joatea ere asko gustatzen zait. Hiruretatik onena hartzen dut.



GA7TAROKO • JW uROITZAPE \A

3manol 9<conde:

em iduan"

6 Kurte dituen elgoibar-
Wtar honek makina bat
gauza egin izan ditu bere bi-
zitan zehar. **Besteak beste,**
atezain jokatu zuen
Elgoibarko futbol taldean,
familiak taberna izan zuer.
Plaza Handian, Sigman egin
zuen lan, Koro Parrokialeko
kidea da 9 urte zituenetik,
Odol Emaileen Elkartean
aritzen da eta Baltasar elkar-
teko fundatzaileetarikoa du-
gu. Imanol Kondek gaur
egun denbora luzeak pasat-
zen ditu Torreviejan, eguzki
berotan, eta egunotan he-
rrian dugula aprobetxatu d'!
gu berarekin luze aritzeko.

- Zertan ibiltzer

Gure jolaslekuak
lengo bolatoki zaharra eta
Goikoerrotako presan arrantzan
ibiltzia zian. Eskuakin kangrejuak
hartzen ibiltzen ginan.
Domeketan Lerun aldera futbole-
ra, zinera "El gordo y el flaco" eta
"Charlot" eta holako pelikulak
ikustera... Guretzat gauzarik ede-
rrena zan bakeruen pelikula bat
ikustia.

„rnan egin zenuen lan. - Bai,
Bernardo Ezenarrokin "Escuela de
artes y oficios" zalakuan ikasi na-
ban eta gero Sigman hasi nitzan
lanian, 44 urte ein nitxuan eta kar-
go inportantiak ere euki nitxun.
58 urtekin jubilazio antizipaua
eman zien.

- **Kondetarren taberna ere oso**
fariatua izan zen. - Bai, Plaza
Haundixan zauan, oin tintoreri-
xia, Ipintza eta Lopez karameleri-
xia dauden tokixan. Hamar anai-
arrebak izan ginan eta ni txikixena
nitzan. Bi urte nitxuanian hartu
zeben gurasuak tabernia eta da-
nok ein izan dou lan han. San

Bartolomietan igual alkar-
tzen ginan lanian 15 la-
gun.

- **orrenbesteko heharra**
egoten al zet: - Orduan
terrazan igual 50 mahai
eta mahai bakoitzian 4 si-
lla izaten zian eta lan
haundixa egoten zan hau-
ra errendi-tzeko. Lana izan
zan gehixo irabazixa bai-
no. Gure aitxak eta amak
esaten zebe diru asko ez
zebela irabazi baina
behintzat familixia aurrera
etara zebela.

- herriaren

• - Bai,
punto zentrikua zan.
Baserritxarrentzat kartak
gurian lagatzen zitxuan
karteruak. Domeketan ere,
baserritxarrak abarkekin
bajau, tabernan zapata dotoriak
jantzi eta elizara juten zian.
Ferixa egunian hamarretakua ein,
ferixara jun, bazkal-tzera etorri eta ma-
haitxik altzau be, afaldu eta dana
gurian eitxen zebe.

- Zopia eta paellia lelengo
eta gero bakilaua saltsan edo to-
matiakin, arkumia saltsan...
Danetik. Zapatuetan, nola lana
eitxen zan 5:30ak arte edo, jendia
kondetarrenera juten zan tripaki-
xak eta karakolak jaterra eta do-
meka gabian, tipikua izaten zan
baba zurixa jatia.

- **Ez al zenuten jaiegunik ha:**
tzen7 - 40 urtian euki gendun ta-
bernia eta egun batian itxi zan ta-
bernia. Gure aitak ez zaban nahi
izaten tabernia ixtia.

- **Baltasar elkar-teko funciatzai-**
len ere bazaiturcp. - Bai, lehen-
dakarixa izan nitzan. 1958ko San
Anton egunian zabaldu genduan.
Lehen zauan Biar-Dana soziedadia
baina orduan aberatsak bakarrik
juten zian. Bi kuadrila elkartu gi-



nan eta Baltasar sortu genduan.
Garai hartan, etxia ostatua zan.
Dilijentziak geratzen zian han,
jendiak gaua pasau eta zaldixak
kanbixatzeko. Kortia egon zan to-
kixan ein gendun soziedadia, es-
kulan asko einda, dirurik ez zaka-
gun eta.

Emakumeak ere sartu zitezke-

' - **Bai, lefengo** sozieda-
dia izan zan Elgoibarren emaku-
miak ere sartzeko modukua, su-
kaldian ez baina bestela bai.

- **Baltasar pelotari handiaren**

- Bai, eta pelotari eskolia ere sortu
genduan. Arriola IV. munduko
txapelduna izan zan afizionuetan
eta Baltasarko soziva eta funda-
doria da. Oingo Lagunak pelota
eskolia ere Baltasarretik urtenda-
kua da.

- **raz.** - Bai, baina ointxe bizi naiz ni
onduen. Torreviejara jun eta han-
go egualdi epel eta euzkixakin
gustora. Saniauta etortzen naiz
handikan.




!rteek aurrera egin ahala, hainbat eta hainbat gauza eta oroitzapen bidean geratzen dira. Baina, badaude batzuk beti izaten ditugunak gogoan, arrazoi onak edo txarrak tarteko. Horien artean sartuko genuke lehen musua. Izan ere, nork ez du gogoratzen bere bizitzako lehenengo musua? Goxoa, ume-la, iheskorra, motza, luzea, apasionantea, ternuraz betea.... Bakoitzak jakingo du nolakoa izan zen. Kafera atera gara gure nagusiei gai honi buruz galdetzeko asmoz. Denek esan digute ez direla dataz oso ondo akordatzen baina guzti-guztiekin aitortu dute berezia behintzat izan zela. Ikusi zeinen erantzun politik eman dituzten eta konparatu gaur egungo egoerarekin. Ez dute bat ere antzik!

**Carmen Basalo****64 urte**

Bizitzan gauza inportanteagoak gertatzen zaizkizun heinean detaile horiek ahaztu egiten dira. Badakit nire senarrarekin izan zela, noski! Orduan ez zen gaur bezala, ez ziren musuak nolanihi ematen.

Gabriel Ruiz**66 urte**

24 urte inguru nituen eta gaur egun emaztea dudarekin izan zen. Musua eman eta gero, ihesi atera zen orduan emaztegaia nuena. Jaengoak gara eta emaztegaia ikusteko leihoaren aurrean zeuden burdinasarearen atzetik hitz egiten genuen.

**Julia Nuñez****74 urte**

Nire senargaiarekin izan zen, portalean. Hitzak nahi beste baina eskuak geldi eduki behar ziren sasoi hartan. Gaur egungoa gehiegizkoa da, mutur batetik bestera pasa gara.

**Eusebi Arrieta****76 urte**

Baserriko atarixan izan zan, gero nere gizona izan zanakin nobixo hasi eta urtebetera. Nere alabak lelengo musua eman zabanian, halako kezka zakan buruan hurrengo egunian konfesatzera jun zala!

**Rufino Maguregi****79 urte**


Hori zela preguntau laike 80 urtekuari! Emaztiakin izan zan nobixotan. Orduko haundixena horixe zan, musua ematia. Kaletik ere ezin zan helduta jun, bakoitza alde batera, erdixan distantzia lagata. Gure sasoiak ez zauan oingo teklarik!

**PEDRO GORRITI**

1997ko azaroaren 27an hil zen 38 urterekin.

"Kaixo Pedro, agurrik ez. Lagun zintzo eta leial zintugunrn ugaz honanzko aldian; beste aldeko zabal-dian

inoiz baino lagunago inoiz baino hurbilago izango zaitugu ziurtasunez itxaropenez".
Eli, Izaskun, Anton eta M. Asun





Aspirin buruzko zenbait

- Norma[ki min arin guztiak baretzen ditu, batez ere artikulazio, giharre, hezur, buruko eta hagineta **mina**. **Anti-inflamatorioa** da eta asko erabiltzen da ebakuntza eta traumatismoen ostean.

• **Dosia Claiioitizean enagina bikoiztu egiten al da?**

- Bi aspirina edo hiru hartzeak ez du esan nahi efektua beste horrenbeste igoko denik. Eragina mugatua da, beraz, mina ez bada joaten dosi normala baino bizpahiru gehiago hartuta, beste analgesikoren bat beharrezkoa izango da.

• **Aspirina jatorduen aurretik ondoren:**

- Sabela beteta daukagunean eragina atzeratu egiten da. Halere, Aspirinak mukosa gastrikoa irritatu egiten duenez, elikagai solidoak jan edo likidoren bat edan eta gero komeni da hartzea.

Egia al da egunero aspiritia erdi hartuz gero infartoa izateko arriskua gutxitu egiten dela?

- Pertsona osasuntsuekin egin diren azterketen emaitzen arabera, badirudi egia dela egunero aspirina erdi hartzeak infartoa izateko arriskua gutxitu egiten duela. On egiten die batez

ere 50 urtetik gorakoei eta gaitasun kardiobaskularrak izateko arriskua dutenei (tentsio altua, kolesterol altua, odolean azukre asko, gizenak, erretzaileak...). 40 urtetik beherako eta inolako arriskurik gabekoen artean, aldiz, hobe da medikuarekin kontsultatzea tratamendu hau.

* **Insomnioa dutenei on egiten al die egunero aspirina bat hartzeak baso bat**

1980an egindako ikerketen arabera, insomnio kronikoa zuten pertsonen hobeto egiten zuten lo 650 gr. aspirina hartu eta gero, baina, dirudienez, ez zuten lehenago hartzen lo, baizik eta denbora gehiago tardatzen zuten esnatzen. Halere, ez dago azterketa fidagarriegirik hau egia dela baieztatzeko.

migrainak eragindako burukomina kontra?

- Migraina burukomin intentsoa da. Aspirina analgesiko txikia bada ere, min intentsoetarako ere balio dezake, horien artean, migraina. Hori bai, lehenbailehen komeni da hartzea aspirina, zenbat eta beranduago hasi tratamenduarekin, orduan eta gehiago kostatzen baita mina kentzea.



Paulina Lasa Fritoak

OSAGAIK: olio, tipula, urdaiazpikoa, baserriko esnea, irina, gatza, arrautza eta ogi xigortua.

PRESTAKETA

Zartagin batera olio bota eta bertan tipula eta urdaiazpikoa gorritu. Hozten laga ondoren, bertara irina botatzen da guztia nahastuz. Poliki-poliki baserriko esnea gehitzen zaio, masa fina egin arte. Gurina erabili beharrean hobea gertatzen da esnegiarekin. Bukaera aldera egositako arrautza zati txikitatu moztu eta esnera botatzen da. Bere puntuan dagoenean zartaginetik atera eta hozten laga behar da. Ondoren, zatiak egin eta irinean, arrautzatan eta ogi xigortuan bildu eta gero frijitu egiten dira.

TXURI

BELTZ

San Frantzisko, 38

ESKAINZA

C-1 gida baimena duen 21 eta 30 urte bitarteko gazte bat behar da.

TEL: 970 959 959

Garraiolaria da lanbidez baina gure artera ekarri badugu ez da izan errepidean egiten dituen kilometroen berri jakin nahi izan dugulako. 27 urteko gazte honek soldataren zati handi bat kontzertuetara joan eta konpaktoak erosten gastatzen du. San Bartolome jailetan Ingalaterrara joaten da urtero kontzertu erraldoi batera. Asteburu ia gehienetan batera eta bestera ibiltzen da kontzertuz kontzertu. Etxean 500 disko eta 2.000 konpakto ditu. Datu gehiago behar al dira?

MIKEL PARADA

"2.000 konpakto inguru ditut"

—**Argi dago melomanoa zarela. Musika mota guztiak gustatzen al zaizkizu?**

Bai, baina batez ere rock-a. Halere, denetik entzutea gustatzen zait, bakalaoa izan ezik.

- **Noiz hasi zen zure alizioa?**

Umetan. Nire arreba nagusiek Beatles-en diskak erosten zituzten eta haiek entzutea gustatzen zitzaidan. Gero, I I urterekin, pagako dirua aurreratzen nuen eta nere kontura hasi nintzen erosten diskak.

—**27 urte hauetan zenbat diska bildu dituzu?**

- Disko biniloak 500 inguru ditut eta konpaktoak 2.000.

—**Guztiak entzunda al dituzu?**

- Erosi ditudan azkenak ez, gainera, momentuaren arabera konpakto bat edo beste bat entzuteko ohitura daukat.

—**Noiz erosten dituzu, as-**

tero, hilerero...

- Hilerero. Egunero entzuten dut Radio 3 irratia eta hor ateratzen diren taldeen konpaktoak erosten ditut hilerero. Ez naiz batere radioformula zalea, hau da, moda-modako taldeak eta abestiak ez ditut gehiegi entzuten. Nahiago izaten dut talde berriak deskubritzea, alternatiboak nolabail

—**Mitomanoa al zara?**

- Bat ere ez! Kontzertuetara joatea gustatzen zait baina ez nuke dirutza bat ordainduko sarrera bategatik edo abeslariren baten objektu pertsonal bat lortzeagatik. Egiten duten musika entzutea gustatzen zait baina beraien bizitza pertsonala eta eurak ezagutzea ez zait interesatzen.

—**Zer da musika zuretzat?**

- Ihesbide bat. Astebukeretan kontzertuetara joatea ihesbide bat da niretzat. Horrek ez du esan nahi nire bizitzako gauzarik garrantzi-

tsuena musika denik, baina on egiten dit. Niretzat musika lagunak egiteko bide bat da, jendea eta kultura desberdinak ezagutzeko bide bat.

—**San Bartolome jaiak galdu arren, nahiago duzu kontzertuetara joan.**

- Bai. Hiru urte daramatzat Ingalaterrara joaten, Reading herrira. Hiru egun irauten duen kontzertua izateko da eta mundu mailako taldeek jotzen dute. Bakarrik joaten naiz normalean baina dagoeneko jende asko ezagutzen dut. San Bartolome jaiak beti izango ditut aurrerantzean eta momentuz nahiago dut Ingalaterrara joan. Asko gustatzen zait kontzertuetan egoten den giroa.

—**Eta musika mota guztiekin berdin disfrutatzen al duzu?**

- Berdin. Aberastasuna hor dago, estlo desberdinak entzun eta guztiekin disfrutatzen jaki tean.

—**Euskal musika ere entzuten al duzu?**

- Bai, baina gutxiago. Niretzat Itoiz izan zen musika talde euskaldunik onena. Harrezkero ez da horrelakorik sortu.

—**Musikan ba al dago gauza berririk egiterik?**

- Oso zaila da. Nire usuez gauza gehienak egin dira. Orain teknologia aldetik soinua askoz depuratuagoa da haina sentimendu gutxiago dago, negozio haundi bihurtu da. Gauza gutxi harritzen naute gaur egun.

—**Asteburu honetarako ba al duzu planik?**

- Bai. Ostegunean Bergaran izan nintzen Jam aretoan trash-metal kontzertu batean. Larunbatean Bilbona Ocean Color Scene taldearen kontzertura eta domekan Donostian Paul Carmack entzutera joango naiz.

EESTEK ESANA

"Mikeli esker musika mota desberdinak ezagutu ditut. Zorte handia daukat osaba hau izateagatik"
EDU CASTILLO, iloba





JRaki
CeiaArcSil

Jakik
25 urte
d auz-
ka gaur egun
eta duela hiru
hat urte joan
zen Tudelara
bizi izatera,
1993ko
maiatzean,
hain zuzen.
Zergatik alde

egin nuen Tudelara? Lanagatik. IMHn ari nintzen ikasten eta ikasurtea amaitu baino lehen, gaur egun lan egiten dudan tailerrekoekin kontaktatu nuen. Platiskoeko piezentzako moldeak egiten ditugu batik bat. Ni, konkretuan, elektroerosioko bi makinatan ibiltzen naiz".

Ifiakiren gurasoak Tudelakoak dira jatorriz eta etxebizitza aspalditik dutenez, alde horretatik, behintzat, ez zuten arazorik izan. Elgoibarraren bizi zenean, Tudelan ematen zituen oporraldiak eta beraz, lagun ugari zituen bertan. "Hala ere, beti igartzen da horkoen falta, hasieran batez ere".

1996 urte amaieran, Republica Dominicanara joan zen Ordezko Zerbitzu Soziala egitera, "eta oso pozik nago, bizitzan izan dudan esperientziarik aberasgarriena izan baita". Urtebete pasatu zuen hiriburu eskola batean lanean eta "Tudelan baino gauza gehiago ikasi nituen han, pertsona modura esan nahi dut. Urte horretan nire neska-lagunarekin nuen harremana sendotu egin zen eta 98an ezkontzeko asmoa dugu".

Makiren asmoen artean ez dago Elgoibarrera bizitzera etortzea baina lagunak eta familia bisitatzeko asmoa baduela aitortu digu.

Aitor.
...+=

lisno Explei
bidaia agentziak
babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 74 39 12

Juan Sorazu Mendizabal (1911-1980)



- 1911ko irailaren 22an jaio zen Mendaroko Goi-koetxe baserrian, Mendarozabal auzoan.
- 4 anai-arreba ziren, bera higarrena.
- Oso gaztea zelarik, 7 urterekin, hain zuzen, aita hil zitzaion, Manuel Sorazu. Ama, Manxelina, Pedro Etxanizekin ezkondu zen eta Elgoibarko Karkizao basenira etorri ziren bizitzera.
- Eskola publikoetan ibili zen. Tarteetan Plaza Handira hurreraten zen esku pilota partiduak ikusteko eta hatzuetan jokatu ere egiten zuen.
- Etxeko lanetan laguntzen zuen, haratzean eta larean. Geroago Urruzuno bailarako mugan zegoen Ertzil haserrira joan zen zerbitzari lanak egitera.
- 16 urterekin igeltsero lanean hasi zen Bilbon. Bertan ikasi zuen lanhidea eta benetan estimatzen zuten herak egindako lana. Sarritan etortzen zen Elgoibarrera familia bisitatzera.
- Hiru urte eman zituen soldaduzkan armadan "Cafionero Rek4.11de" untzian, Bilhon haslea zuelarik. Txoko ugari ezagutu zituen Cantahria inguruan.
- 1949an ezkondu zen Itziarko Clara Beristainekin Errosario kalera. Seme bat eta alaba hat izan zituzten.
- Beranduago Pedro Muguruza etorbidera joan ziren bizitzera.
- Igeltsari lanarekin jarraitu zuen hetri, mota askotako lanak egiten.
- Izaera apalekoa zen. Lagun arte girorako hetri prest, txantxa zalea. Ezaguna oso herrian.
- Herri kirolak, euskal kankak eta futbola zituen gogokoak. Sinesmeneko gizona zen.
- Gizon gordina zela, hileta batetik etxera bueltan, gaitz txar hatek jo eta hitzik gabe eta elharrituta geratu zen. Aulkian egon arren irriharrea ez zitzaion desagertu.
- 1980ko irailaren 27an hil zen 69 urte zituela.

Juanito Gorostiza

Truk

Elgoibar

San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21

HERRI-GAIN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
(IT 74 30 40) ELGOIBAR



Argazki hau **Pepita Unzuetak** ekarri digu eta 1933ko uztailaren 15ekoa da. Eskola publikoetako neskatoak Gernikako arbola ikustera joan ziren eta egun hartakoa da erretratu hau. Pertsona asko dago argazkian eta ez dago denen izena jakiterik.

Atzean, ezkerretik eskumara: **Beatriz Gabilondo, Purita Mujika, Elena**

Pascual, Josefa Agirregomezkorta, Kontxita Azkue, Pakita Gurrutxaga (t), Apolonia Arregi, Pakita Azkue (t), M. Luisa Lehr, Maria Ansola, Maria Arriola, Bibiana San Martin, Juanita Arrieta eta Juanita Ostolaza.


Bigarren ilarakoak irakasleak ziren: **Anselma, Isabel eta Maritxu** anderefloak. Hurrengoa **Anselmaren** ahizpa da.

Hirugarren ilaran: **Miren Armendia, Mertxe Arregi (t), Maria Barrutia, Lucia Gabilondo, Guada Mujika, Matilde Azkoitia, Begoña Latxa, Visi Irusta, Maria Bilbao, Mi-**

ren Mendikute, Lucia Alkorta, Paule Konde, Arcadia Gabilondo (t), Rosa Unzueta, Bibiana Garmendia, Teodora Larreategi, Vitoriana Martinez, Pepita Unzueta, Amparo Barrutia (t), Maria Rementeria, Maria Barrutia (t), Pepita Irusta (t), Maria Oteiza eta Teresa Arrieta.

Laugarren ilaran: **Lourdes Leiaristi, Loreto Zubiaurre, (...), Rufina Sanz (t), Trini Matas, Julita Mendikute, Maritxu Unzueta, Lolita Suarez, M. Angeles Gabilondo (t), Sasieta, Beatriz Aiesta, M. Carmen Garmendia, Itziar Ajuria, Itziar Konde, M. Luisa Pazos, Aurora Pereña, Miren Vallejo, Juanita Rementeria, M. Luisa Urrutia, Alejandra Arregi eta Maria Arkarazo (t).**

Aurreko ilaran, eserita: **M. Carmen Zuazubizkar, (...), Gloria Mugerza, Pilar Garitano, Ignacia Atxa Orbea, M. Luisa Rementeria, (...), Lucia Zabala, (...), Pilar Irusta, Asun Monje, M. Tere Astigarraga, (...), Juanita Zabaleta (t), Fernanda Ansola, (...), M. Luisa Arriola, (...), (...), Milagros Ortiz (t) eta Nieves Gabilondo.**



RIEURIO2M

Errosario, 30

Tel: 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAXA



IITURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. ik 74 36 52 74 27 B9

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

• Federazio Kopako finalerako sailkatu da Naundi

Asteazkenean Haundik Amurrioren aurka jokatu zuen partidua bina berdinketarekin amaitu zen. Partidua penaltietan erabaki zen. Emaizta honi esker Euskal Ligako Federazioko Koparen finalerako sailkatu da. Abenduaren 24an eta 31n jokatu dira finaleko partidua. Haundik Real UniOn eta Amunio kanporatu ditu hone-tara heltzeko eta ez du partidu bat ere galdu ucapellketa honetan.

• Eskolarteko atletismo frogak

Joan den zapatuan izan ziren atletismo frogetan Mintxeta Taldeko neska-mutilek ere parte hartu zuten. Hona hemen emaitzak: alturan, Nerea Zubiaurre laugar-^{7pn} eta 9.000 metro-tan lehenengoa. Julen Merinok ere irabaztea lortu zuen distantzia horretan eta Dorleta Aranbeni bigarren geratu zen. Alaitz Merino 1.000 metroan txapelduna izan zen eta 200 metroan, berriz, hirugarrena. 60 metroan Dorleta Aranberrik hirugarren sailkatzea lortu zuen eta pisu jaurtiketan iker Arriliaga bigarren geratu zen.

Lau elgoibartarrek hartu dute parte Donostiako marathoian

Marka bikainak egin dituzte denek

Maria Pilar Arriola, Asier Arrieta, Tomas Arrieta eta Martin Lopez de Larrinzar elgoibartarrek joan den domekan Donostiako marathoia korritu zuten. 42 kilometroko luzerako lasterketa izan zen eta lau elgoibartarrek oso marka onekin amaitu zuten ibilbidea. Esaterako, Maria Pilar Arriolak, harrigarria hada ere, iaz egin zuen marka 35 minututan jaitsi zuen, 3 ordu eta 17 minutu. Maria Pilarrek bazekien 3h52'ko denbora hobetzeko aukera zeukala, "aurten hobeto entrenau dot baina hala ere, ez naban espero hainbeste izatia". Pilar oso pozik dago egin duen markarekin. "Asier Arrieta eta bixok batera ein gendun karrera osua. Noiz pintxa-ko gendun zain gaozen baina 'pajaria' ez zan agertu eta konturatu orduko metan gaozen. Tomas Arrieta ere eurenkin atera zen baina 30. kilometroan alde egin zuen eta Pilar eta Asierren aurretik iritsi zen helmugara. Martin Lopez de Larrinzar izan zen markarik onena egin zuena, 2h28'. Hasiera-hasieratik bakarrik atera zen gainerako elgoibartarrek baino erritmo biziagoarekin. Martinek 3 ordutik jaitea nahi zuen eta lortu ere bai. Lau korrikala-

riek lasterketa bikaina egin zuten, "eta horretan egualdixak asko lagundu zabaldua ez dao". Eguraldia alde batera lagata, elgoibartar hauek kategoria handiko korrikalariak direla erakutsi dute. Hona hemen euren denborak:

- **Martin Lopez de Larrinzar:** 2h48'
- **Tomas Arrieta:** 3h 11'
- **Asier Arrieta:** 3h17'
- **M. Pilar Arriola:** 3h17'



Tomas Arrieta, Asier Arrieta eta Pilar Arriola lasterketan.

'ESKOLARTEKO KIROLAK

EMAITZAK Azaroak 22 3. jardunaldia

ARETO FUTBOLA

- **Benjamin mutilak a**
Pilar Bulls 0- Ikas Bulls 13
Ikas Bihurri 2- Herri Otsoak 2
Ikas Gorri 0- Pilar Lakasitos 6
Ikas Tximista 1 Mendaro A 4

- **Benjamin neskek a**
Pilar Txiki 0 Ikas Baleak 3
Ikas Hartz 0- Ikas Ortazar 4
Pilar Usoak 7- Ikas Bizkor 0

SASKIBALOA

- **Alebin muttlak11**
Ikas Espabidubi 16 - Pilar Flash 4
Ikas Gol 24 - Ikas Inpernu 4
Herri Boomerang 12 - Pilar All Star 18

- **Alebin neskek 111**
Ikas Trumoi 12 Ikas Planet 4
Ikas Txingor 0- Pilar Girls 12
Herri Argi 6- Pilar Kas 6

ESKUBALOA

- **Infantil**
Ikas Axelko 10 - Ikas Otsoko 21
Pilar Ajax 10 Perrabekuak 7
Ikas Bolilla 13 - Basati 5
- **infantil neskek** ■
Ikas Trons 6 Pilar Mix 6
Blablatarrak 5 Ikas Gorribeltz 24

AGENDA Azaroak 29 larunbata

ARETO FUTBOLA

- **Benjamin mut. (Minixelan)a**
9:00 Ikas Tximista - Herri Otsoak
10:00 Pilar Bulls Ikas Bihurri
11:00 Ikas Gorri - Ikas Bull
12:00 Pilar Lakasitos - Mendaro A
- **Benjamin nesk. (Mintzetan)■**
9:30 Ikas Bizkor- Ikas Beleak
10:30 Pilar Usoak - Ikas Ortazar
11:30 Pilar Txiki - Ikas Hartz

SASKIBALOA

- **Alebin mut. (Herri Eskolan) ■**
10:30 Pilar All Star - Ikas Gol
11:15 Herri Boomerang - Pilar Flash
12:00 Ikas Inpernu - Mendaro B

- **Alebin neskek (Ikastolan)1**
10:30 Ikas Txingor- Ikas Laino
11:15 Herri Argi - Ikas Planet
12:00 Pilar Kas - Pilar Girls

ESKUBALOA

- **Infantil mutilak (Ikastolan) ■**
9:00 Basati - Pilar Ajax
9:45 Pilar Boys - Ikas Otsoko
10:30 Ikas Axelko - Perrabekuak
- **Infantit neskek (Ikastolan) •**
11:15 Blablatarrak Ikas Spanky
12:00 Ikas Gorribeltz - Pilar Mix

Abenduaren 4ra arte luzatuko da Nazioarteko 1111. Xake Txapelketa

Besteak beste, Kasparov-en entrenatzaileak hartuko du parte

Asteazken eguerdian egin zen Nazioarteko VIL Xake Txapelketaren aurkezpena. Jose Maria Oruesa-gasti alkateordea eta Migel Angel Muelas Eu, skadiko Xake Federazioko presidenteak Xake Txapelketaren nondik-norakoak azaldu zituzten. Aurten txapelketak 10. kategoria duen arren, "11. kategoria lortzea" izango dela erronka adierazi zuten. Bost puntu gehiago lortuz gero, datorren urtean 11. kategoria izango luke txapelketak.



Asteazkeneko aurkezpenean xake jokalariguztiak izan ziren.

Hilaren 26an hasi ziren jokatzen partidak Kultur Etxean. Arratsaldeko 4etan ematen zaio hasiera txapelketari eta gaueko 10etan amaitzen da. Ordu horretan partida dagoenatan uzten da eta epaileak erabakitzen du bi jokalarien artean nork irabazi duen. Partidak egunero jokatzen dira ordu eta leku berean eta abenduaren 4an amaituko da txapelketa sari banaketarekin.

Urtero parte hartzen duten jokalarien maila oso altua izaten bada ere, aurten sekula baino erakargarriagoa izango da txapelketa. Izan ere, munduko txapelduna den Kasparov xake jokalariazagunaren entrenatzailea, Gia Giorgazde georgiarra Elgoibarko txapelketan ari da parte hartzen. Nazioarteko maisu kategoria dauka eta jokalariguztien artean puntuaziorik

altuena duena. Bera da, hain zuzen ere, favoritoa. Honez gain, 16 urtez azpiko munduko txapelduna den Paco Vallejo ere munduko onenekin neurtuko ditu indarrak. Mutiko honek 15 urte baino ez ditu eta dagoeneko nazioarteko maisu titulua dauka. Gainerako jokalariek hauek dira: Oleg Korneev errusiarra, Zestoako Felix Izeta eta iazko txapelduna Elgoibarren, Mario G6mez bilbotarra, Darcy Lima brasildarra, Carlos Matamoros Ecuadorkoa, eta Estatuko Ieku ezberdinetatik etorritako Zen6n Franco, Marcelino Sion, Alfonso Romero eta aipatutako Paco Vallejo gaztea.

Jokalariguztiak jasoko dute sariren bat dirutan. Irabazlearentzat 225.000 pta.ko saria dago; bigarrenarentzat 175.000 pta.koa eta hirugarrenak 125.000 pta. jasoko ditu.

• Martin futholmal ohiari omenaldia

C.D. Elgoibar Elkartek omenaldia egin zion hainbeste urtetan txurigorriekin jokatu izan duen Martin elgoibartar ezagunari. Joan den zapatuan, Haundik Berneoren aurka jokatu zuen partidua- ren aunetik, J.M. Esnaola `Muxil` plaka bat ernan zion Martin-i klubeko guztien izenean. Martin-ek atezain modura jokatu izan du Haundin eta azken urteotan taldeko ordezkaria izan da.



aitor zabala

EMAITZAK

Futbola

Haundi 3 - Bermeo 1
Pedrusko 1 - Soraluze 0 (2. erreg.)
Elgoibar 6 - Antoniano 1 (kad.)
Elgoibar 1 - S.D. Eibar 1 (Int.)
Laudio 2 - Elgoibar 0 (Oho. jub.)
Anaitasuna 2 - Elgoibar 2 (Neskak)
Elintxa 2 - Elgoibar 0 (1. jub.)
Haundi 2 - Amurrio 2 (Federazio Kopa)

Eskubaloia

Unceta Elg. 18 - Leizaran 7 (Kad. nes.)
Usurbil 27 - Pneumax Elg. 29 (Kad. mut.)
Hernani 16 - Pagoaga Elg. 26 (Jub. nes.)
Usurbil 22 - Tecnomeca Elg. 32 (Jub. mut.)
Urnieta 22 - Elgotbar 23 (Seniorrak)

Areto futbola

Elgoibar 2 - Adarra 6 (1. maila)
Elgoibar 3 - Astilleru 5 (Auton.)

Futbitoa

Menisco 3 - P.S.K. 5
Elkarte autoak 5 - Trans Video 2
Sanrokotarrak 5 - Zelai 6
Herminios 7 - S. Pitxote 2

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 29
12:30 Elgoibar - Bergara (1. jub.)
16:30 Elgoibar - Bermeo (Oho. jub.)
Igandea, 30
16:30 Elgoibar - Corrella (Neskak)

Areto futbola, Kiroldeqian

Ostirala, 28
22:10 Elgoibar - Hosfrinor (1. maila)
23:10 Elgoibar - Moulinex (Auton.)

Eskubaloia, Kiroldeqian

Larunbata, 29
16:00 Pagoaga Elg. - Zarautz (jub. nes.)
17:30 Elgoibar - Bergara (Seniorrak)

Futbitoa, Kiroldeqian

igannea, 30
9:00 Kunta Kinte - Txin Txoja
10:00 Lojantxi - Berrogei Duro
11:00 Peyperviu - Aizkorak Mendibli
12:00 Maser - Karkis

Patxi Arriolak Euskadiko txapella lortu du ehiza xehean

Abenduaren 6an Espainiako txapelketarako finalerdiak jokatuko ditu

Patxi Arriola ehiztarin Euskadiko Ehiza Xeheko txapelketan nagusitu zen azaroaren Than Arabako Zantbranako Santa Crila del Cierroko herrian. Patxi eta bere txakur Dalok onenak direla erakutsi zuten nahiz eta kompetentzia oso handia izan.

Euskadiko bigarren postuan sailkatu zen Juan Barrenetxea anoetarra, orain arteko Euskadiko txapelduna, Patxi eta Datoren arerio nagusia izan zen Gipuzkoako txapelketan ere Patxik hegazti baten aldea baino ez zion atera Barrenetxeari, Gipuzkoako txapeldunordea izan zelarik. Euskadiko txapelketan, herriz, Patxik eta anoetarrek pieza kopuru berarekin amaitu zuten baina puntuak batzerako orduan, Patxik puntu gehiago eskuratu zituen, eperrak faisaiak baino puntuazio altuagoa izaten baitu. Patxik 10 eper bota zituen eta bigarrenak 8 eper eta bi faisai.

Euskadiko txapelari esker, Espainiako Ehiza Xeheko finalerdietan parte hartzeko aukera izango du Patxik. Datoren abenduaren 6an Valentziako Ayora herriko "El Corralejo" izeneko kotoan jokatu da. Sailkatuz gero



abenduaren 20an Toledon izango den finalerako pasea lortuko du. Patxik esan digunez, "Valentziako ezer ez dot eza gutzen eta hori desbentajia da nerretzat eta bentajia hanguentzat. Sailkatzia oso zaila dao. Hala ere, ahal doten guztia eingo dot". Orain arte jokatuako hiru txapelketetan, herrikoan, probintzian eta autonomikoan, irabazi du Patxik.

Espainiako Oilagorren Txapelketa

Patxik lau aldiz lortu du Espainiako txapela oilagorren ehizan. Iazko txapelduna ere badenez, automatikoki jokatu du Espainiako txapelketako finala. "Espainiako txapela lau bidar irabazi dotenez, aurtan ere beste horrenbeste eixia espero dau jendiak, ezin dozu txapela galdu. Baina urtetik urtera gero eta gogorraua izaten da irabazlia izatia". Hala ere, Espainiako txapelduna izateko kategoria eduki badaukala erakutsi du behin eta berriz Patxik.

LEHIAKETA

Juan Mugerza Nazioarteko Krosaren LV. edizioa

ris atozen hiru asteotan Mugerza krosari buruzko hiru **gaidera egingo** ditugu. **LOF** 1998ko urtarrilean izango den kroserako bi **sarrera** zozketatuko ditugu as-tero hiru galderak asmatzen dituzuen guztion artean. Lehiaketa arnaitzean irabaziteen artean Softlan-ek emandako **modem** bat eta **Internetarako uritebete**ko **konexioa doan** zozketatuko dugu.

Aurtan interneten krosari buruzko berri guztiak (historia, palmaresa, baita Elgoibarko informazioa ere...)

Sar zaitex krosaren sareetan

Interneteko hellbidea: <http://www.softlan.comicross-muguerza>

Posta elektronikoa: egotoki@softlan.com

1 14C ~ ~ EREI = = 111 ~ ~ =

ASTE HONETAKO GALDERAK:

1- Nor izan zen senior gizezkoetan iazko edizioko irabazlea?

- a) Jon Brown
- b) Martin Fiz
- c) Haile Gebreselassie

2- Zein egunetan izango da 1998ko krosa?

- a) Urtarrilaren Flan
- b) Urtarrilaren 4an
- c) Urtarrilaren 6an


3- Zein urtetan irabazi zuen Juan Mugerza krosa bost aldiz munduko txapelduna izan den John Ngugi keniarrek?

- a) 1988an
- b) 1986an
- c) 1990ean

Erantzunak zein diren baldin badakizu ekarri txartelak BARREnera asteazkena baino lehen.



Izen abizenak: **Tel:**



Nora Bastfda

ODONTOLOGIA IKASLEA

Umetan zer izan nahi zenuen?

- Txiki-txikixa nitzanian nahi nabab abogaua izatia baina umetako gauzak izaten dia. Beti euki izan dot garbi nere kontura nahi dotela lan eixia, ez jata gustatzen inor eukitzia

gainian kontuak eskatzen eta



pentsau nabab osasunak ematen zabalau aukera hori. Nik aparatua euki det eta gustatzen jatan ikustia nola eitxen zaban lan dentistiak, lan garbixa da eta espezializatzen bazera...

— **Aurten hasi dituzu Odontologia ikasketak Leioan.** - Bai. Leioan plaza gitxi daude eta badaezbada eskaeria ein nabab Mureian, Granadan, Sevillan eta Bartzelonan. Bartzelonan enpadronau ein nitzan ze aukera gehixodaude baina zela Leioan hartu ninduten...

— **Bost urte egin eta gero dentista izango zara.** - Bai eta gero espezializazio desberdinak daude: ortodonzista, zirujia... Nik oingoz espezializaziva eitxia nahi dot baina ondiokan bost urte falta dia eta ikusiko dou zer pasatzen dan.

— **Bi hilabete daramatzazu. Zer moduz?** Bost asignatura dauzkagu otsailerarte eta gero beste bost. Ixa dana teoria da baina gero arratsaldez egun batzutan praktikak daude. Momentuz ondo, gustora nao baina asignatura bakarra dakagu euskeraz eta pila bat igartzen da. Maisuak esaten dabana erderaz apuntatzia kostau eitxen da eta euskerazko klasian ematen dau ondiokan institutuan gaudela. Karta bat idatzi dou klasiak euskera hartzia eskatzen baina...

— **Ikasgai gehienak zientziari buruzkoak al dira?**

- Bai, nahiko antzerakuak ze danetan azaltzen dia zelula, birusa eta holako hitzak. Institutuan ematen dan biologian antzerakua da.

— **Eta praktikak, zer moduz?** - Teorian danetik ikusten dogu, gorputz guztia, ze esaten digute hagineko min baten jatorrixa edozein puntutan egon laikela. Horregatik, praktiketan ere gorputzeko parte danak ikusten ditxugu. Hildakuekin ibiltzen gera eta neri ondiokan kriston inpresiva eitxen dia. Ez naiz ohixu hildakuen gorputzak manipulaten.

t— **Dentistarengana joaten zarenean gehiago fijatuko zara egiten duten lanean, ez?** Bai, nere dentistiari ere esan diot odontologia hasi naizela ikasten. Lehenguan medikuana jun nitzan etaradiografixak etara ziazan, han ibili nitzan begira, zela horri buruz ere gauzak ikasi dituzgun... Gustatzen jata ikasten nauana, interesantia da eta bizitzan praktikan ere ikusten dozu askotan.

ODONTOLOGIA FAKULTATEAK: PLAZA KOPURUA/ ESKATZEN DEN NOTA

- **Bartzelona:** 120/ 6,86
- **Madrileko Complutensea:** 90/ 7,49
- **Granada:** 85/ 7,13
- **Murcia:** 65/ 6,99
- **Santiago De Compostela:** 45/ 7,14
- **Sevilla:** 68/ 7,25
- **Valencia Estudi General:** 66/ 7,53
- **EHU:** 50/ 7,44



114440.10.44 rS. Co93.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

"MEKANIZATUEN TAILERRA"

111111)11 Dfl UANI

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 74 3391,

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko .. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emailak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirot Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udaletxea 756100
 Ongizate zerbitzua. 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Libu rutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

AEHNEKOEN ENEAK

San Lazaro Egoitza . 740296
 Zaharren Bittolna 740526

IKASTETKEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M H..... 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastexea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Espafiol 74 10 82
 Egi n 10 84 21
 Zazpiki irratia 74 34 74

28 ostirala

18:30 **ODOL ATERALDIA**
 P. M. Urruzuno 8an

22:15 **ZINE KLUBA**
 "Breakdown"
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

2 larunata

16:00 **HAURRENTZAKO XAKE TXAPELKETA**
 Kultur Etxean

19:00 **PRESOEN ALDEKO MANIFESTAZIOA**
 Irteera Madalan
 Antolatzailea: Gestorak

19:30-22:15 **ZINEA**
 "Martin Hache"

22:30 **LIN TON TAUN TALDEAREN KONTZERTUA**
 Gaztetxean
 Antolatzaileak: Gestorak eta Gaztetxea

30 igandea

10:00 **LEZAMARA AUTOBUSA**
 Irteera Madalatik
 Antolatzailea:
 Etxeberria peña

16:30 **TXOTXONGILOAK**
 Bulgariako `Dora-Gabe' taldea
 Antzezlanak: "Zaunka egiten ez zekien txakurra"
 Herriko Antzokian

19:30-22:15 **ZINEA**
 "Martin Hache"

astelehena

19:30-22:15 **ZINEA**
 "Martin Hache"

19:30 **ERROTATXOren KONTZENTRAZIOA**
 San Frantzisko iturrian

3 asteazkena

19:00 **INSTITUTUKO GURASOEN URTEKO BATZARRA**
 Bernardo Ezenarron

21:00 **OLANOren ALDEKO PEÑA SORTZEKO BILERA**
 Ametsa tabernan

4 osteguna

19:00 **ELGOIBARKO IZARRAKA APARTEKO BATZAR OROKORRA**
 Ubitarten elizak duen lokalean

20:00 **HAURREN XAKE TXAPELKETAKO SARI BANAKETA**
 Kultur Etxean

22:15 **ZINE KLUBA**
 "Retrato de una dannna"
 Aurkezpena: Amagoia Zabala
 Antolatzaileak: Haizea eta Ongarri. Zine Kluba

5 ostirala

22:15 **ZINEA**
 "Contact"

11 NE A



Zuzendaria: Adolfo Aristarain
Antzeleak: Federico Luppi, Juan Diego Botto, Eusebio Poncela.

Martin filachn)

Martin Echenique Buenos Airesen jaiotako zinegilea da. Aspaititik bizi da Madrilen eta gorroto du bere jaioterria. Bere semeak ere Martin du izena, baina aitarengandik bereizteko `H' deitzen diote. Nortasunik gabeko mutiko honek 19 urte ditu eta amarekin bizi da Buenos Airesen. `14' k istripua izango du eta aita Arjentinara itzuliko da. Bost urte eta gero lehen aldiz elkar ikusiko dute aitak eta semeak.

• **Abenduaren lean, HIESaren Nazioarteko Eguna**

Errotatxo Elkarteak mahai informatiboak jarriko ditu abenduaren lean, HIESaren Nazioarteko egunean, San Frantzisko iturriaren parean. Iluntzeko 19:30ean hasita, kontzentrazioa egingo da leku berean. Era berean, egun horretan izara zuria lazo gorriarekin jartzeko gonbitea luzatu nahi diete herritar guztiei.

• **Lezamara irteera antolatu du "Etxeberria peñank"**


Igandean, hilak 30, Elgoibarko "Etxeberria Peila" k Athletic B eta Elgoibar taldeen arteko partidua ikusteko irteera antolatu du. Partidua goizeko 11:30ean hasiko da eta autobusa 10:00etan irtengo da Madalatik. Izena eman nahi dutenek Kaia kafetegian egin dezakete. Bazkideek doan izango dute autobusa eta bazkide ez direnek, berriz, 500 pta. ordaindu beharko dute. Partiduaren ordu berean inauguratuko da "Piru" Gainza futbolistaren eskultura bat.

• **Olanoren peña sortzeko deialdia**

Datorren asteazkenean, abenduak 3, Olano txirindulariaren aldeko lagun taldea sortzeko bilera egingo da Ametsa tabernan gaueko 9etan. Momentuz hiru lagun bakarrik daude baina gehiago animatzea espero dute.

I Haurrenlako txotxongiloak

Udal Kultura Sailak haurrentzako txotxongilo saioa prestatu du domekarako, hilak 30. Arratsaldeko 16:30ean hasiko da emankizuna Bulgariako "Dora-Gabe" taldearen eskutik. "Zaunka egiten ez zekien txakurra" izenburua dauka saioak eta gaztelaniz izango da. Txakur txiki bat zaunka egiten irakatsiko dion norbaiten bila dabil. Animalia askorekin egiten du topo baina inork ere ezin dio zaunka egiten irakatsi. Azkenean, bere kabuz ikasiko du zaunka egiten.



• **Elgoibarko Izarrako Aparteko Batzar Orokorra**

Datorren ostegunean, hilak 4, Elgoibarko Izarrak aparteko batzar orokorra egingo du iluntzeko 19:00etatik aurrera elizak Ubitarten duen lokalean (Elkartearen aldamenen dagoena). Ezohiko deialdi honetan gai bakar bat aztertuko da: Iriondo taberna alokairuan hartzea. Gaia azaldu ondoren, galde-erantzun saioaren txanda izango da.

• **Presoen aldeko eklnizak**

Elgoibarko presoek gartzelean daudenetik 13 urte bete zituzten ostegunean, hilak 27. Urteurren honen aurrean eta Alberdi, Iriondo eta Jaio preso elgoibartarrak Estatuko gartzeletan sakanatuta daudela salatuzeko Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeak hainbat ekintza antolatu ditu. Bihar, larunbata, hilak 29, goizean zehar erakusketa eta material salmenta egingo da Plaza Handian. Arratsaldeko 19:00etan, berriz, manifestazioa hasiko da Madalan. Ondoren, Gaztetxearekin elkarlanean, Lin Ton Taun taldearen kontzertua: hasiko da Gaztetxean.

• **Herri Institutuko gurasoen urteko balzarra**

Herri Institutuko zuzendaritzak jakitera eman duenez, datorren abenduaren 3an, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan, gurasoen urteko ohiko batzar nagusia egingo da Bemardo Ezenarro ikastetxeko areto nagusian. Batzarrean urte osoko balorazioa egingo da. Beraz, batzarreara joateko deia ikasleen guraso guztiei egiten zaie.

• **Eskolarteko Xake Txapelketa**

Bihar, hilak 29, Eskolarteko Xake Txapelketa jokatuko da Zubi-Ondo elkartearen egoitzan (Juan Mugerza kalea). Maila guztietako neska-mutilek izango dute parte hartzeko aukera: benjaminak, alebinek, infantilek eta kadeteek. Saiok arratsaldeko 4etan hasiko dira. Sari banaketa, berriz, datorren ostegunean, abenduak 4, izango da arratsaldeko 20:00etan Zubi-Ondoren egoitzan. Ondoren luntxa eskainiko zaie joaten direnei.

B

FARMAZIAK

- | | | |
|-----------|---|---------------|
| | Egunez | Gauetz |
| 29 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana) | |
| 30 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana) | |
| 1 | Yudego Escala | |
| 2 | Bidasolo Bidasolo | |
| 3 | Yudego Yudego | |
| 4 | Etxeberria Etxeberria (Errosario kalea) | |
| 5 | Bidasolo Anduaga | |

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza, Tel: 75 61 42

OKINDEGIA

30 igandea Doña Mercedes

ONGARRI
zine kluba

Zuzendaria: J. Campion
Antzezleak: N. Kidman, J. Malkovich, B. Hershey.

Retrato de una dama 996)

"El piano" filmearen zuzendariak Isabef Archer-en bizitza kontatzen du emakumearen ikuspuntutik. Isabelek gorabehera handiak bizi izan ditu maitasun kontuetan. Ezkontza proposamen ezberdinei eta maitale askori ezetza eman ondorent, bizizale batekin ezkontzen da. Pelikula estilizatua da, argazkigintza ikusgarria duena.

Salerosketak

SALDU

- Urrutiko mandoarekin dabilen autoa salgai. Egoera onean eta merkea. tr 74 39 63 (Egurdian eta gauean)
- Buzeatzeko ekipo osoa saltzen da. 7 mm.ko trajea. Berri-herria. 25.000 pta. ts. 909 41 73 52 (Dani)
- 90x611 cm.ko erdiko mahai hat eta 60x60 em.ko izkinako mahaia saltzen ditut. Estilo garaikidea (hurdinezko oinak eta heira). Berri-berriak datide, bi urte dituzte. Erdi prezioan. Aspiragailua ere saltzen da, Panasonic etxekoa. Hiru urte ditu eta oso gutxi dago erabilita. tr 19 16 80
- 4 metroko karabana saltzen da. tr 74 31 37.
- Antezko txaketa berdea saltzen da, Egoera onean. Merke. tr 74 25 36 (gauetz)
- Renault Expre', furgoneta diesela salgai, tr 74 02 09 (gauetz)

Partikularrak

- Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira. Gela eta teknologia tailerra. sa- 907 15 30 62/ 74 41 16
- Kitarra klase partikularrak (solfeo gahe) etnaten dituen norbaiten bila nabil. tr 74 12 05 (gauetz)
- ♦ Injineru tekniko industrialak matematika, fisika, kimika, marrazketa eta aharri huruzko klase partikularrak ematen ditu (gaztele-raz). 71. 74 22 29 (Begoria)
- Alemanezko klase partikularrak ematen ditut. -a- 74 00 98
- Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak hartuko nituzke etts-karaz. ti 74 27 78 (Sara)

Garajeak

- Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. tr 74 19 70
- 1 Garaje marraduna alokatzen da pista beltzean. s 74 00 70 (gauetz)
- Garaje itxia alokatzen da Pista Beltzean. tr. 74 03 81
- Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenhakian. 74 27 89
- Garaje marraduna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa. ts 74 04 34
- Garaje itxi bat saltzen dut King-Kong-en. tr 76 17 95

Etxebizitzak

- Buhardilla hat saltzen da Pedro Muluruzan. Bi gela, sala, sukaldia, bainugela eta desperntsa ditu. tr 74 14 23 (eguerdiko l2etatik 2etara).
- Etxea salgai Santa Ana kalean. Berritua dago. fr 929 43 24 22 (Arratsaldeko 6etatik aurrera).
- Etxehizitza salgai Dehan. Alameda parean, hondartzatik 50 metrorra. Berritua. tr 908 57 95 89
- Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzarietan. tr 74 00 65
- Etxea alokatzen da Erretxindin, amueblatua. tr 74 22 25
- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Igerilekua, aparkalekua, garbigailua eta telebista ditu eta hondartzako lehen ilaran dago. tr 74 20 31

Lana

• ESKAINTZA *

- Neska hat behar da etxeko lanak egin eta hi haur zaintzeko. 74 32 94
- 18-25 urte hitarteko neska hehar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. tr 74 45 87
- Londresen hizi den Elgoiharko familia hatek neska euskalduna hehar du umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. tr 74 08 17
- Neska euskalduna hehar da jate-txean lan egiteko. Esperientziarekin. ra 74 37 22 (Goizeko 9etatik Iletara)
- Emakumea hehar da barraraku eta sukaldarako. ta 74 37 61)

sESKAERM

- Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. tr 74 43 31 (Agurtzane)
- Eskopetero-armeroa eskaintzen da reharhatze lanak, eskopetero, limatzaile edo pulidore lanak egiteko 17 47 70
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. s 17 47 70
- Bigarren mailako espezialista eskaintzen da igeltsero edo enkofratzaile lanak egiteko. s 17 47 70
- Etxeko lanak eta garbiketa egiteko emakumea orduka lan egiteko eskaintzen da. tr 74 15 09 (Victoria)

Bestelakoak

- Lepoko zapi hat galdu dut (hi ahate ditu). .9. 74 06 17 (Sarilu egingo da).
- Pilarreko Amabirjinaren irudia duen domina aurkitu dit. tr 74 13 37
- Begi urdindun katu txuria aurkitu dit. Lau hilabete inguru ditu. wp 20 20 18.
- Forro polar urdin iluna topatuen Madalan, Galdu duenak jo dezala Udaltningora,

Agurrak

- Etxebe, oso ondo jolasten duzu futholean haina eskerrak eman nahi dizkizut. Zorionak Unai Etxeherriari Ikerren partez.
- Zorionak Unai Etxeberria Arizmendiri hilaren 24an 11 urte bete zituelako. Futholean jolasteko duen zaletasunarekin janni dezala. Ikastolako 6. mailakoen partez.
- Zorionak ederrenak Kareni hilaren 22an 11 urte bete zituelako. Ikerren eta Muxiren partez. Zorionak haita ere lagun partez. Aupa Karen!
- Zorionak Urtzi Intxausti Vergueli gaur 3 urte bete dituelako Nekane eta Aitorren partez. Musu handi hat eta bere anaia txikia Andoni ondo zain dezala.
- Zorionak Jone Loiolari hilaren 30ean 9 urte heteko dituelako. Lارا eta Itsaso Alguacilen partez.
- Maddaleni zorionik beroenak hilaren 24an 11 urte bete zituelakollerren partez. Zorionak haita ere neska hatzuen partez. Nor ote'?
- Zorionak Nerea Merinori igandean, hilak 30, 18 urte bete-ko dituelako. Guraso eta ahizpa Aliciaren partez,

1 Superzorionak Melard Arrizabalagari hilaren 26an 9 urte bete zituelako. Ikas Beleen partez.



bat igaro dezazula.

- Mila kilo zorion Aitor Goikoetxeari asteazkenean. abenduak 3, 5 urte heteko dituelako. Must haundi hat aita, ama eta Ihonen partez.



zorionsu hat igaro dezala.

- Zorionak Ane Ovejerori abenduaren 4an 23 urte beteko dituelako. Familiaren partez. Laster hemen izango zaitugulako.



- Josu Perez Lizi zorionak igandean biarteto heteko dituelako. Lehengusina Ainhoaren partez.
- Zorionak Juan Antordo Martini bibar, lartrhata, 11 urte beteko dituelako. Guraso, iloba Andoni, arreben eta koinatuaren partez.




Kaxka karrozal zorionak atzoko partez. Ia noiz ortzen zeran pastel batzuekin eta hankak baino gelnago mobitzen dozun burria. Bada zeozer eitxen hasteko ordua, ezta?... Guraso, Nekane eta A torren partez.

- Zorionak Lorea Arenasi gaur, azaroak 28, 19 urte betezen dituelako. Lagunen partez.



- Kix, Maite eta Zasu, Zorionak! Mende laurdena pasauta, erclixan bila jun. Bildurrik ez? Kehaaa..... Kuadrilakoak.



Euskal Herrian okela ona dugu

EUSKO LABEL



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAID ETZARE KIN FINANTZATLITAKO KANPAINA

Kalitateko Euskal Labelarekin identifikaturik eta ziurtaturik iristen zaio okela kontsumatzaileari

KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA

Kalitateko Eusko Labela duen Abelgorri Okela Baimendutako Harategietan bakarrik saltzen da

AZPEMA

1MATXIN ETA KORTZU HARATEGIA
HARZUBIA IBILBIDEA, 26

- CARNICERIA ZABALA
BUZTINZURIKO ERREBALA, 8
- EDUARDO HARATEGIA
ERDIKALE, S/N
- BELOK1 HARATEGIA
JOXE ARTETXF, 21
- BALENTIN ODRIUZOLA HARATEGIA
ARANA, 14
- CARNICERIA SAN SEBASTIAN
FORU IBILBIDEA, 4

AZKOMA

- BELOK1 HARATEGIA
PLAZA BERRI, 75

ELGOIBAR

- ARMUETA HARATEGIA
SAN BARTOLOME, 16
- CARNICERIA ANTONIO L.BENITO
URASANDI, 26
- CARNICERIA-CHARCUTERIA MARI
SAN FRANCISCO, 1
- ZIARDA HARATEGIA
ROSARIO, 10
- GARAY HARATEGIA
SAN FRANCISCO, 9

DEBA

- GORA-BEHERA HARATEGIA-AUTOSERVICIO
POLIGONO AGERRETXE
- ANTXON HARATEGI-URDAITEGIA
LERTXUNDI, 8
- ARRIZABALAGA HARATEGIA
PLAZA ZAHARRA, 2
- AITTOLA HARATEGIA
ASTILLERO, 3

MUTRIKU

- ARR1ZABALAGA HARATEGIA
ERDIKOKALE, 26
- EROSLE DENDABERRI
SAN AGUSTIN, 10

eLabeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur gorri balez sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

jadierazitako Harategi Haimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN

Aukeratu zure OPEL, MAZDA, HYUNDAI edo NISSAN erria. ESKAINEN HOBEA



ESKAINEN DIZKIZUGUN ZERBITZUAK

- Mekanika
- Elektrizitatea
- Errekanbio eta beranskina
- Bigarren eskuko autoak
- Zure neurrira egindako
- aseguruak eta finantziazioak



Otaola etorbidea, 27 - Tel/ Faxa: 70 13 82 - EIBAR